

ALBE

# BERTSO AGENDA

2023 / EKAINA - IRAILA




BALKOITIK BALKOIRA - MUNDIALA - JAIK - HITZAREN DANTZA


# ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

[www.albe.eus](http://www.albe.eus)

SARE SOZIALAK

 albe\_bertso

 @albetsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa  
Algorta (Getxo)  
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





**4** EKITALDIAK

**14** ARGAZKI GALERIA

 *Jaialdia*

 *Berezia*

 *Bertso jira*

EKAINA

10

ZAPATUA

ERANDIO GOIKOAKO  
JAIK

13:30 GOIKOLANDA PLAZA

Gure agendan egonkortzen hasi den bertso saioa, Erandio Goikoako Jai Batzordearekin batera sortuta.

**Bertsolariak:**

Kerman DIAZ  
Paule LOIZAGA  
Inazio VIDAL  
Asier ALCEDO

**Gai-jartzailea:** Iñaki BEITIA *ARBILDU*



2021ko bertso jaialdia / albe.eus

EKAINA

16

BARIKUA

## BALKOITIK BALKOIRA

21:30 ALGORTAKO  
PORTU ZAHARRA**Bertsolariak:**

Sustrai COLINA  
Joanes ILLARREGI

1999. urtean egin zen lehen aldiz Algortako Balkoitik Balkoira saioa San Nikolas plazan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

Hurrengo urtetik aurrera Portu Zaharreko Etxetxu plazan egiten hasi zen eta, aurretik ere, bertan izango da saioa.



2022ko Balkoitik Balkoira / albe.eus

EKAINA

23

BARIKUA

## EGIZUKO UMEEN SAN JUAN SUA

**20:30** ALGORTAKO SAN  
NIKOLAS PLAZA



### Bertsolariak:

June DIAZ

Peio LAGO

Maialen LAGO

Aurtengo San Juan Suak bertsozko txinpartak aterako ditu San Nikolas plazan Egizurekin elkarlanean egindako ekitaldian. ALBEko bertsolari gazteak hantxe izango dira urteko egunik luzeena berotzen.

2023ko ekainaren 23an, ostirala, Algortako San Nikolas plazan

**18:00 Aurpegia margotu** gura duzue?

**19:00 Diskofesta**

**20:00 Txokolate-jana & munduko postreak**

**20:30 ALBEko bertsolarien saioa**

**21:00 Konjurua & Urdiaingo San Juan kantaita**

**23:00**ak arte suaren inguruan dantzan!

ANTOLATZALEAK  
ABIAN KULTUR ELKARTEA | ITXARRE FALDIA | KOROA BILUZIK  
ALBE | BIZARRA LEPOAN | MUJERES CON VOZ | HARRIA ETEN BARRIK  
EGIZU | GETXOKO ETORKINAK FEDERAZIOA | SAN NIKOLAS ZABALIK

EKAINA

24

ZAPATUA

## ALBE EGUNA

**10:00** URIBE KOSTA

Bazkaria: 23€

ALBE Eguna urtero ospatzen dugu garai honetan, Uribe Kostako herriren batean, eskolako belaunaldi guztiak batzeko asmoz.

Egun osoko egitaraua izaten da: goizean bertso-poteoa, eguerdian bertso bazkaria, arratsaldean bertso jardun luzea. Aurtun, Gorlizko itsasargia bisitatu eta Kai Eder klubean bazkalduko dugu. Animatu zeu ere!



EKAINA

25

DOMEKA

## LEIOAKO JAIAK

**13:00** BULEBARRA

Aurten Leioako San Juan jaiak ekainaren 23tik 25era izango dira.

Aspaldiko tradizioari eutsiz, aurten ere bertso jaialdi ederra egingo dugu, Leioako udalarekin elkarlanean.

### Bertsolariak:

Julio SOTO

Naroa TORRALBA

Aitor MENDILUZE

Maddi Ane TXOPERENA

**Gai-jartzailea:** Erlantz PAZOS



2019ko bertso jaialdia / albe.eus



UZTAILA

2

DOMEKA

## SOPELAKO JAIAK BERTSO SAIOA

**13:00** TXOSNAGUNEA

### Bertsolariak:

Oihana BARTRA

Ametz ARZALLUS

Alaia MARTIN

Peio LAGO

**Gai-jartzailea:** Arrate ILLARO

Aurten Sospelako jaiak ekainaren 28tik uztailearen 2ra izango dira.

Jaialdi hau indarra hartzen ari da urtetik urtera, Sospelako udalarekin eta jai batzordearekin egiten dihardugun elkarlanari esker.



2019ko bertso jaialdia / albe.eus



## UZTAILA

# 2

## DOMEKA

### SOPELAKO JAIAK KUADRILLAKO SARI BANAKETA

**20:00** TXOSNAGUNEA

Kuadrillen sari banaketan bertso saioa izaten da aspalditxotik. Aurtengoan ere ez da bertsorik faltako.

#### Bertsolariak:

Paule LOIZAGA

June DIAZ

Unai MENDIBURU



2019ko sari banaketako saioa / albe.eus



Sopelako Udala

SOPELA  
LARRABASTERIA  
**JAI**  
**BATZORDEA**

## UZTAILA

# 12

## EGUAZTENA

### BERTSO JAIALDI MUNDIALA

**19:00** ALGORTAKO  
MUXIKEBARRI

Bertso jaialdi experimentalak, bere ibilbide luzean egundoko arrakasta izan duena.

Gaur egun, Muxikebarrin egiten dugu eta aretoa goraino betetzen jarraitzen dugu.

Gaia sekretua izan ohi da, baina pistak ematen ditugu beti. Adi egon gure sare sozialetan!

#### Gonbidapenak:

Muxikebarrin eta Romoko Kultur Etxean dagoeneko eskuragai.



2021ko Jaialdi Mundiala / albe.eus

#### Bertsolariak:

Maialen LUJANBIO

Miren ARTETXE

Unai ITURRIAGA

Kerman DIAZ

Julio SOTO

Jon MAIA

UZTAILA

26

EGUAZTENA

GORLIZKO JAIK

**20:00** ELIZAKO PLAZA

**Bertsolariak:**

June DIAZ

Saioa ALKAIZA

Aitor MENDILUZE

Beñat GAZTELUMENDI

**Gai-jartzailea:** Beñat VIDAL

Tradizio eta arrakasta handiko bertso jaialdia, urtero Gorlizko kultur etxearekin eta Uribe Kostako Mankomunitatearekin elkarlanean egiten duguna.



UZTAILA

29

ZAPATUA

ALGORTAKO JAIK

**13:00** KASINOKO PLAZA

**Bertsolariak:**

Imanol URIA

Erika LAGOMA

Ametz ARZALLUS

Nerea ELUSTONDO

**Gai-jartzailea:** Mainer BARAÑANO

Aurten Algortako San Inazio jaiak uztailaren 28tik 31ra izango dira.

Indar handiz itzuliko dira bertsolariak Kasinoko bertso plaza mitokoa kantatzera.





UZTAILA

30

DOMEKA

## ALGORTAKO JAIK

**13:00** KASINOKO PLAZA

### Bertsolariak:

Jone URIA

Unai ITURRIAGA

Oihana IGUARAN

Eñaut MARTIKORENA

**Gai-jartzailea:** Beñat VIDAL



2017ko bertso jaialdia / albe.eus



UZTAILA

31

ASTELEHENA

## ALGORTAKO JAIK BERTSO MARATOIA

**13:00** KASINOKO PLAZA

### Bertsolariak:

Aitor SARRIEGI

Onintza ENBEITA

Joanes ILLARREGI

Maialen LUJANBIO

**Gai-jartzailea:** Jon AMEZAGA

### Maratoilariak:

Aitor SARRIEGI

Maialen LUJANBIO



2022ko Bertso Maratoia / albe.eus

San Inazio egunarekin batera entzute handiko bertso saio bat heltzen da Algortako kale-tabernetara: BERTSO MARATOIA!

Eguerdian jaietako bertso saioarekin has- ten da, ondoren herriko jatetxe batean bertso bazkaria, eta gero, hainbat bertso saio Algortako hamaikatxo taberna eta kale bazterretan, ordu txikitara arte.



ABUZTUA

3

EGUENA

## ERROMOKO JAIAK

**16:00** TXOSNAGUNEA

### Bertsolariak:

Jone URIA

Sustrai COLINA

Andoni EGAÑA

Paule LOIZAGA

**Gai-jartzailea:** Peru VIDAL

Erromoko jaiak abuztuaren 2tik 6ra izango dira aurten.

Erromoko Jai Batzordearekin elkarlanean, bi saio egin ohi ditugu aspalditik: bertso jaialdi bat eta bertso poteo bat.



2019ko bertso jaialdia / albe.eus

ABUZTUA

5

ZAPATUA

## ERROMOKO JAIAK

**19:00** TXOSNAGUNETIK  
ABIATUTA

### Bertsolariak:

Jon MAIA

Imanol URIA



2022ko bertso jira / albe.eus



**ABUZTUA**

**11**

**BARIKUA**

## **GORLIZKO BALKOIRIK BALKOI SAIOA**

**20:00** ELIZAKO PLAZATIK  
ABIATUTA

**Bertsolariak:**

Etxahun LEKUE

Nerea IBARZABAL

Dagoeneko egonkurtu zaigun bertso saioa da Gorlizko balkoitik balkoirako hau, Uribe Kostako Mankomunitatearekin elkarlanean egiten duguna.



2021ko Balkoirik Balkoi saioa



**ABUZTUA**

**12**

**ZAPATUA**

## **PORTU ZAHARREKO JAIAK**

**19:30** ETXETXU PLAZA

Algortako Portu Zaharreko jaiak abuztuaren 11tik 14ra izango dira aurten.

Bi bertso saio izaten ditugu Portu Zaharreko jaietan: plaza libreko bat eta Marmitako eguneko sari banaketakoa.

**Bertsolariak:**

Andoni EGAÑA

Unai MENDIBURU



2022ko bertso saioa / albe.eus



ABUZTUA

14

ASTELEHENA

## PORTU ZAHARREKO JAIAK MARMITAKO EGUNA

**18:00** ETXETXU PLAZA

**Bertsolariak:**

Peio LAGO

Peru IRASTORZA

Maite SARASOLA



Unai Mendiburu 2019ko jaietan / albe.eus



ABUZTUA

24

EGUENA

## ERANDIOKO JAIAK

**20:00** UDALETXEKO PLAZA

**Bertsolariak:**

Inazio VIDAL

Alaia MARTIN

Igor ELORTZA

Xabat GALLETEBEITIA

**Gai-jartzailea:**

Erandioko plaza bertsoz jazten da urtero San Agustin jaietan, eta bertsozaleek ez dute inoiz huts egiten.

Erandioko Berbots Euskara taldearekin eta Udaleko euskara zerbitzuarekin elkarlanean egindako saioa duzu berau.



2023ko saioa Erandion / albe.eus



IRAILA

10

DOMEKA

## HITZAREN DANTZA

**11:00** ALGORTA

**Bertsolariak:**

Paule LOIZAGA

Xabat ILLARREGI

Aitor ETXEBARRIAZARRAGA

Bertsoa, herri musika eta dantza euskarren harian biltzen dituen egun osoko ekitaldia da Hitzaren Dantza. Aurten ere Algortako bazterrak bertsoz, doinuz eta dantzaz beteko ditugu.

Egun osoko egitaraua prestatu dizuegu: goizean *Zazpi Jauzi* kalejira, herriko zazpi gunetan bertsoak, kantak eta dantzak zabalduko dituen.



2017ko Hitzaren Dantza / albe.eus

Eguerdian, bertso bazkaria San Nikolaseko pilotalekuan eta arratsaldean erromeria bertako plazan.

**Bazkarian izena emateko adi gure sare sozialei!**



2022an Portu Zaharrean / albe.eus



BERTSO BAZKARIA 2023



ESKOLATIK PLAZARA 2023



ABRA SARIA 2023



SANTA ESKEA 2023

